

# ***KANALAK***

Baloretzko proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iristen den deskribatuko dugu.

Hiru kanal mota ditugu: Komunikazio-kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak.

Bi kanal mota bereizi ditzakegu:

- A. Kanal zuzenak, hots, bitartekariak saihesten dituztenak. Komertzialen talde batek osatutako salmenta indarra edota Internet bidezko online salmenta denda bat izan daitezke, adibidez.
- B. Zeharkako kanalak, hau da, dendak (propioak edota elkartuak) eta dendei handizkako salmenta egiten dieten handizkariak.
  - a. Kanal propioak honakoak dira: Salmenten Indarra, Internet bidezko Salmentak eta, izatekotan, baita gure denda propioak ere.
  - b. Kanal elkartuak: elkartutako dendak eta handizkariak, hain zuzen.



Gure kasuan, komunikazio-kanalak sare sozialak izango dira. Banaketa-kanalak, aldiz, garraiobideak, eta salmenta-kanalak kirol dendak.

Kanal zuzena, Internet bidezko online salmenta denda bat izan litzateke.

Zeharkako kanal bezala, handizkari moduan arituko gara, besteek haien kirol dendetan saltzeko.